



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA  
ERMUA HIRIKO UDALA

## ORDENANZA REGULADORA DE LA CONCESION DE AYUDAS PARA LA REHABILITACIÓN Y RENOVACIÓN DE FACHADAS EN EL TÉRMINO MUNICIPAL DE ERMUA

HOJA 1.

### **PREAMBULO**

El Ayuntamiento de Ermua desea colaborar en el cumplimiento de los deberes de mantenimiento de las condiciones de ornato que corresponden a las personas propietarias de edificios residenciales, fomentando un entorno armonioso y estéticamente adecuado.

Mediante la presente normativa se pretende fomentar la mejora del estado de conservación, mantenimiento y ornato de las fachadas de edificios de viviendas situados en suelo urbano residencial del municipio de Ermua.

### **Artículo 1. OBJETO**

Las ayudas económicas que se regulan en la presente ordenanza tienen por finalidad la concesión de subvenciones con destino a la rehabilitación y renovación de fachadas completas de edificios de uso residencial colectivo situados en el suelo urbano del municipio de Ermua.

Para acceder a las subvenciones reguladas las obras descritas deberán realizarse en edificios con una antigüedad superior a 25 años.

No se podrá conceder la subvención si no han transcurrido al menos quince años desde la fecha del otorgamiento de la última subvención municipal obtenida por el mismo objeto, salvo causa excepcional y justificada.

### **Artículo 2. ÁMBITO DE APLICACIÓN**

Serán susceptibles de aplicación de esta ordenanza todos aquellos casos de inmuebles que, encontrándose dentro del ámbito del suelo urbano residencial, se encuentren dentro de ordenación. Así pues, quedan excluidas todas aquellas edificaciones declaradas en fuera de ordenación expresa.

Por razones de racionalidad y de rentabilidad de la inversión podrán establecerse zonas de actuación preferente o prioritaria, cuyo alcance y vigencia vendrán determinados por la necesidad de actuación y que para cada año podrá establecer el Pleno de la corporación municipal.

### **Artículo 3. BENEFICIARIOS/AS**

Tendrán la consideración de beneficiarios/as:

- a) El/la propietario/a único/a del edificio o su inquilino/a, con la autorización por escrito del/de la propietario/a.
- b) Las Comunidades de propietarios/as de los edificios legalmente constituidas.

Podrán concederse ayudas a la rehabilitación y renovación de fachadas, cuando se cumplan los siguientes requisitos:

1. Edificios calificados como de uso residencial colectivo, en los términos recogidos en el Plan General de Ordenación Urbana de Ermua.
2. Los inmuebles deberán tener una antigüedad mínima de 25 años.
3. Las obras objeto de ayuda deberán ser obras que hayan obtenido licencia municipal.
4. Deberán referirse a rehabilitaciones o renovaciones de fachadas que sean visibles desde espacio público.
5. Será condición indispensable para obtener las ayudas que el/la beneficiario/a se encuentre al corriente de pago de cualquier clase de obligación tributaria con el Ayuntamiento.
6. Serán de cuenta y responsabilidad del/la solicitante la adopción de todas las medidas de seguridad necesarias para la correcta realización de los trabajos.

#### **Artículo 4. NIVEL DE INTERVENCIÓN**

A efectos de aplicación de las ayudas económicas, las obras conducentes a la adecuación del acabado general de las fachadas, deberán cumplir los siguientes aspectos:

- a) Rehabilitación o renovación completa e integral de la totalidad de las fachadas, con un correcto tratamiento de paramentos, carpintería, balcones, herrerías, etc...
- b) Ocultación de cables y tubos que figuren vistos en la fachada, debiendo empotrarlos en la misma o bien ocultarlos mediante canaleta pintada.
- c) Será obligatorio el correcto acabado de los cierres y puertas de los elementos situados en planta baja.
- d) En el caso de edificios en los que las viviendas tengan luces a patios interiores o cuenten con terrazas o balcones, será obligatorio la eliminación de todos los tendidos de ropa a la vía pública.

#### **Artículo 5. CONSIGNACIÓN PRESUPUESTARIA**

En relación con las ayudas municipales establecidas en la presente normativa, con carácter anual el Área Técnica municipal incluirá en su presupuesto la partida económica que se vaya a destinar a este fin, consignada en el programa funcional 4310.480.02.

#### **Artículo 6. PROCEDIMIENTO PARA LA CONCESIÓN DE SUBVENCIONES**

El plazo de presentación de las solicitudes de ayuda quedará abierto a partir del día siguiente a aquel en que tenga lugar la publicación de la presente ordenanza en el Boletín Oficial de Bizkaia y hasta el 30 de noviembre de 2012.

En futuros ejercicios el plazo de presentación de solicitudes será desde el 1 de enero hasta el 30 de noviembre de cada año.

Las solicitudes se deberán presentar en la Oficina de Atención a la Ciudadanía, Abiapuntu, situada en la C/ Komentukoa nº 3 o por cualquiera de los medios señalados en el art. 38 de la Ley 30/92 de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común. Junto con la solicitud se acompañará la siguiente documentación:



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA  
ERMUA HIRIKO UDALA

## ORDENANZA REGULADORA DE LA CONCESION DE AYUDAS PARA LA REHABILITACIÓN Y RENOVACIÓN DE FACHADAS EN EL TÉRMINO MUNICIPAL DE ERMUA

HOJA 2.

Si la petición la realiza el/la propietario/a único/a del edificio:

- a) Solicitud.
- b) Copia de la escritura de propiedad o Nota simple informativa del Registro de la Propiedad.

Si la petición la realiza una Comunidad de Propietarios/as:

- a) Solicitud.
- b) Fotocopia del DNI de la persona solicitante (Presidente/a de la Comunidad de propietarios/as).
- c) Fotocopia del acta de la Junta en la que se acuerde realizar las obras, así como el nombramiento del/la Presidente/a.
- d) Fotocopia del CIF de la Comunidad de Propietarios/as.

En todos los casos, se adjuntará:

- a) Fotocopia de la licencia municipal de obras u orden de ejecución.
- b) Justificante del pago al Ayuntamiento del impuesto de construcciones, instalaciones y obras.
- c) Fotocopias de las facturas relativas al gasto realizado.
- d) Certificado bancario acreditativo de un número de cuenta corriente cuya titularidad corresponda a la Comunidad de Propietarios/as o al/la propietario/a del inmueble.
- e) Fotografías de las fachadas, antes y después de la intervención.
- f) Informe final de las obras ejecutadas con expresión de las mediciones de las fachadas exteriores, descontando los huecos.

Además de los documentos y datos relacionados en el presente artículo, el Ayuntamiento podrá, en atención a cada caso concreto, requerir al/la solicitante cualquier otra documentación complementaria que considere oportuna a los efectos de la valoración del conjunto de las obras realizadas.

Si la solicitud no reúne todos los requisitos establecidos en esta ordenanza, el órgano competente requerirá al/la interesado/a para que la subsane en el plazo máximo e improrrogable de diez días, indicándole que si no lo hiciese, se le tendrá por desistido de su solicitud, previa resolución que deberá ser dictada en los términos previstos en el artículo 71 de la Ley 30/1992.

### **Instrucción del procedimiento.**

El órgano instructor será el concejal delegado de urbanismo, que realizará cuantas actuaciones estime oportunas para determinar, conocer y comprobar los datos en virtud de los cuales debe formularse la correspondiente resolución.

Los servicios técnicos municipales, una vez recibida la solicitud, llevarán a cabo las actuaciones necesarias para determinar si los/as solicitantes cumplen los requisitos para ser

considerados como beneficiarios/as de subvenciones. Asimismo, girarán una visita de inspección, certificando en su caso la adecuación de lo realizado con la licencia concedida.

Una vez recabada toda la información necesaria se emitirá el informe de evaluación en el que conste que los/as beneficiarios/as y las solicitudes cumplen los requisitos necesarios para acceder a las ayudas. Este informe servirá de base para la elevación de la propuesta al concejal delegado de urbanismo, órgano competente para resolver sobre la concesión de la subvención.

El plazo máximo para resolver el procedimiento no podrá exceder de cuarenta y cinco días. Dicho plazo se computará a partir de la fecha de la solicitud. El vencimiento del plazo máximo sin haberse notificado la resolución, legitima a los/as interesados/as para entender desestimada su solicitud por silencio administrativo.

#### **Artículo 7. CRITERIOS DE SELECCIÓN**

El criterio básico para el otorgamiento de la subvención será el orden cronológico de presentación de solicitudes, siempre que reúnan todos los requisitos que exige la presente Ordenanza y mientras exista cobertura presupuestaria.

En el supuesto de que no hubiere suficiente crédito presupuestario en el presupuesto municipal de cada ejercicio, los/as solicitantes que queden excluidos/as por tal motivo, y cumplan la presente normativa, podrán ser incluidos/as como beneficiarios/as en el siguiente ejercicio, atendiendo a los criterios de selección antes señalados.

#### **Artículo 8. CUANTÍA DE LAS AYUDAS**

El importe de la ayuda será el resultado de multiplicar los metros cuadrados de las fachadas exteriores, descontados los huecos, por la cantidad de 8 €/m<sup>2</sup>.

#### **Artículo 9. CONCURRENCIA CON OTRAS SUBVENCIONES**

Las subvenciones reconocidas por la presente normativa serán compatibles con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad, sin que el importe de la subvención pueda ser de tal cuantía que en concurrencia con otras subvenciones supere el coste de la actividad subvencionada.

#### **Artículo 10. CAUSAS DE REINTEGRO**

Procederá en todo caso el reintegro de la cantidad íntegra recibida en concepto de subvención, con la exigencia de intereses de demora, sin perjuicio de otras responsabilidades, en los supuestos siguientes:

- Obtención de la subvención falseando las condiciones requeridas para ello u ocultando aquéllas que lo hubieran impedido.



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA  
ERMUA HIRIKO UDALA

## ORDENANZA REGULADORA DE LA CONCESION DE AYUDAS PARA LA REHABILITACIÓN Y RENOVACIÓN DE FACHADAS EN EL TÉRMINO MUNICIPAL DE ERMUA

HOJA 3.

- Incumplimiento total o parcial del proyecto de obras autorizado por la licencia municipal.
- Resistencia, excusa u obstrucción a las actuaciones municipales de comprobación y control.

### **Artículo 11. INFRACCIONES Y SANCIONES**

El régimen de infracciones y sanciones será el establecido en el Título IV de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre y demás legislación que resulte de aplicación.

### **Artículo 12. ENTRADA EN VIGOR**

La presente ordenanza entrará en vigor una vez que haya transcurrido el plazo de treinta días desde la publicación en el Boletín Oficial de Bizkaia de su aprobación inicial y se haya publicado su texto completo en el BOB.



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA  
ERMUA HIRIKO UDALA

## ERMUKO UDALERRIAN FATXADAK BIRGAITU ETA BERRIZTATZEKO DIRULAGUNTZAK EMATEA ARAUTZEN DUEN UDAL ORDENANTZA

HOJA 1.

### HITZAURREA

Udalak bizitegirako eraikinen jabeei apaintasun publikoko baldintzak mantentzeko dagokien betekizuna betetzen lagundu nahi die, ingurune harmoniatu, atsegina eta estetikoki egokia suspertuz.

Honakoa araudiaren bitartez Ermuko udalerriko bizitegi-lurzoruan dauden etxebizitza-erakinen fatxaden kontserbazio-, mantentze- eta apaintasun-egoeraren hobekuntza suspertu nahi da.

### 1. Artikulua. XEDEA

Honako ordenantzan arautzen diren laguntzen helburua Ermuko hiri-lurzoruan kokatutako bizitegi-erabilerako eraikin kolektiboen fatxadak osorik birgaitu eta berriztatzeko diru-laguntzak ematea da.

Ordenantza honetan arautzen diren diru-laguntzak eskuratzeko 25 urte baino eraikin zaharragoetan egin beharko dira birgaitze eta berriztate-obrak.

Ez da diru-laguntzarik emango udalak helburu berarekin emaniko diru-laguntza jaso zenetik gutxienez hamabost urte iragan ez badira, ohiz kanpoko arrazoi justifikaturik frogatzen ez bada.

### 2. Artikulua. APLIKAZIO-EREMUA

Honako ordenantzan araututakoa bizitegi-lurzoruaren eremuan dauden hiri-antolamenduaren baitako higiezinenei aplikatuko zaie, beraz, antolamenduz kanpoko eraikin guztiak baztertuta geratzen dira.

Arrazionaltasunaren eta inbertsio-errentagarritasunaren mesedetan lehentasunezko inguruneak ezarri ahal izango dira, horien irismena eta iraunaldia Udaltzarrak, jarduteko premiaren arabera, urterik urte ezarriz.

### 3. Artikulua. ONURADUNAK

Onuradunak izango dira:

- a) Eraikinaren jabe bakarra edo bere errentaria, jabearen idatzizko baimena badauka.
- b) Legez eraturako eraikinen jabeen erkidegoak.

Fatxadak birgaitzeko eta berriztatzeko laguntzak eskuratzeko ondorengo baldintzak bete beharko dira:

1. Eraikina bizitegirako eraikin kolektibo moduan kalifikatuta egotea Ermuko Hiri Antolamendurako Plan Nagusian.
2. Higiezinak hogeita bost urte gutxienez edukitzea.
3. Diru-laguntzarekin egingo den obra egiteko, udalaren lizentzia edukitzea.

4. Obrak espazio publikotik ikusten diren fatxaden nariadurak birgaitzeko edo berriztatzeko egitea.
5. Ezinbesteko baldintza izango da diru-laguntza eskuratzeko, Udalarekiko zerga-betebeharrei dagokienean egunean egotea.
6. Eskatzailearen kontura joango da eta bere eginbeharra izango da lanak behar bezala egiteko behar segurtasun-neurri guztiak hartzea.

#### **4. Artikulua. ESKU-HARTZE MAILA**

Ordenantza honetan ezarritakoa aplikatzeko, fatxadaren akabera orokorra egokitzeko obrak ondorengo helburua izango dute:

- a) Fatxada osoa goitik behera birgaitu edo berriztatzea, arotzeria, paramentu, balkoi, errementarritza eta abarren tratamendu egokia eginez.
- b) Fatxadan dauden kableak eta hodiak ezkutatzea, horma edo kanaleta pintatu baten barruan gordez.
- c) Derrigorrezkoa izango da etxabeen dauden elementuen itxitura eta ateen akabera egokia izatea.
- d) Eraikinak argi-patioa edo barne patioa duenean eta terraza edo balkoiak, bide publikora begira dauden esekilekuak kendu egin beharko dira.

#### **5. Artikulua. AURREKONTU-KONTSIGNAZIOA**

Honako araudian ezarritako udal laguntzei dagokienean Udal Alor Teknikoak bere aurrekontuan sartuko du urtero helburu honekin erabili behar den diru-kopurua, 4310.480.02 partidan gordailua eginez.

#### **6. Artikulua. DIRU-LAGUNTZAK EMATEKO PROZEDURA**

Diru-laguntzak eskatzeko epea honako ordenantza Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean zabalduko da 2012ko azaroaren 30era arte.

Hurrengo urtealdietan urtarrilaren 1etik azaroaren 30era egongo da zabalik diru-laguntza eskabideak aurkezteko epea.

Eskabideak Abiapuntun, Heritarrentzako Arreta Bulegoan, aurkeztu beharko dira, Konbentukoa 3an kokatua, edo Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/92 Legearen 38. artikuluan adierazitako edozein baliabidez. Eskabidearekin batera honako agiriak aurkeztuko dira:

Eraikinaren jabe bakarrak egiten badu eskaera:

- a) Eskabidea.
- b) Jabetza-eskrituraren kopia edo Jabetza Erregistroaren informazio-ohar soila.



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA  
ERMUA HIRIKO UDALA

## ERMUKO UDALERRIAN FATXADAK BIRGAITU ETA BERRIZTATZEKO DIRULAGUNTZAK EMATEA ARAUTZEN DUEN UDAL ORDENANTZA

HOJA 2.

Jabeen Erkidegoak egiten badu eskaera:

- a) Eskabidea
- b) Eskatzailearen NANaren fotokopia (Jabeen Erkidegoaren presidentea izango da eskatzailea).
- c) Obrak egitea eta presidentea izendatzea erabaki zen batzarren akten fotokopiak.
- d) Jabeen Erkidegoaren IFKren fotokopia.

Kasu bietan, ondorengoak erantsiko dira:

- a) Obrak egiteko udal lizentziaren edo exekuzio-aginduaren fotokopia.
- b) Udalari eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga ordaindu izanaren egiaztagiria.
- c) Egindako gastuaren fakturen fotokopiak.
- d) Jabeen Erkidegoaren edo higiezinaren jabearen titulartasuneko kontu korrante zenbaki baten banku-egiaztagiria.
- e) Fatxadaren argazkiak, konpoketa egin aurretikoak eta ondorengoak.
- f) Egin diren obren azken txostena, fatxada-zuloak kenduta, kanpoaldeko fatxaden neurriak adieraziz.

Artikulu honetan zerrendatutako dokumentu eta datuez gain, Udalak, kasu zehatz bakoitzari ahalik eta ondoen erantzuteko, egindako obrak osotasunean balioesteko beharrezkotzat jotzen duen edozein dokumentu eskatu ahal izango dio eskatzaileari.

Eskabideak honako ordenantzan ezarritako baldintzak bete ezean, organo eskudunak hamar eguneko epea (gehienezkoa eta luzaezina) emango dio interesdunari akatsa konpontzeko, horrela egin ezean, 30/1992 Legearen 71. artikuluan ezarritakoaren arabera emaniko ebazpenaren ondoren, eskaera bertan behera utzitzat emango dela adieraziz.

### **Prozeduraren instrukzioa**

Instrukziogilea hirigintzako zinegotzi ordezkaria izango da, eta harrezko jarduera guztiak egingo ditu erabakiaren oinarri izango diren datu guztiak zehaztu, jakin eta frogatze aldera.

Behin eskaera jasota, udal zerbitzu teknikoek beharrezko jarduera guztiak burutuko dituzte eskatzaileek diru-laguntzen onuradun izateko baldintza guztiak betetzen dituzten jakiteko. Halaber, bisita bat egingo dute fatxada behatzera, egindako lana lizentziarekin bat datorrela egiaztatzeko.

Beharrezko informazio guztia biltzen denean ebaluazio-txostena egingo da, onuradun eta eskaerak diru-laguntzak eskuratzeko behar diren baldintza guztiak betetzen dituztela adieraziz. Txosten hori oinarria izango da hirigintzako zinegotzi ordezkariari proposamena aurkezteko, bera baita diru-laguntzaren emakida erabakiko duen organo eskuduna.



Ebazpena emateko prozedura ez da berrogeita bost egun baino gehiago luzatuko. Epe hori eskabidea aurkezten den datatik aurrera zenbatuko da. Aipaturiko epean jakinarazpenik jaso ezean, eskabidea ezetsizat hartu beharko da, administrazioaren isiltasunez.

## **7. Artikulua. AUKERAKETA EGITEKO IRIZPIDEAK**

Diru-laguntzak emateko irizpide nagusia eskabideak aurkezteko hurrenkera kronologikoa izango da, beti ere honako ordenantzan eskatzen diren baldintzak betetzen badira eta aurrekontuan dirurik badago.

Urtealdi bakoitzeko Udal Aurrekontuan behar beste aurrekontu-krediturik ez badago, arrazoi horregatik diru-laguntzarik barik geratu diren eskatzaileak, honako araudia betetzen badute, hurrengo urtealdiko diru-laguntzen onuradun izango dira, aurreko paragrafoan aipatutako aukeraketa-irizpideei jarraituta.

## **8. Artikulua. DIRU-LAGUNTZAREN KOPURUA**

Diru-laguntzaren kopurua kanpoaldeko fatxaden metro karratuak, zuloak kenduta, 8 zenbakiaz biderkatzearen emaitza izango da (8 €/ metro<sup>2</sup>ko)

## **9. Artikulua. ALDI BEREKO BESTE DIRU-LAGUNTZAK**

Honako ordenantzan arautzen diren diru-laguntzak bateragarriak izango dira helburu bereko beste diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin, beti ere diru-laguntzaren zenbatekoak, beste diru-laguntza batzuekin batera, diruz lagundutako jardueraren kostua gainditzen ez badu.

## **10. Artikulua. DIRU-LAGUNTZA ITZULI BEHARRA**

Ondorengo kasuetan, ezar litezkeen beste erantzukizun batzuez gain, diru-laguntzaren kopuru osoa itzuli beharko da, dagozkion berandutza interesekin batera:

- Diru-laguntza jasotzeko baldintzak desitxuratuz edo berori ez jasotzea sortuko luketenak ezkutatuz eskuratu denean.
- Udal lizentzian baimendutako obra-proiektu osoa edo berorren zati bat bete ez denean.
- Egiten ari diren lanak egiaztatu eta kontrolatzeko udalaren ikuskapenak eragotzi, horiei kontra egin edo ezin direla egin adierazten denean.

## **11. Artikulua. ARAUAK HAUSTEA ETA ZIGORRAK**

Arau-hauste eta zigorrei dagokienean azaroaren 17ko 38/2003 Legearen IV Tituluan eta aplikagarri diren beste arauetan ezarritakoa aplikatuko da.



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA  
ERMUA HIRIKO UDALA

## ERMUKO UDALERRIAN FATXADAK BIRGAITU ETA BERRIZTATZEKO DIRULAGUNTZAK EMATEA ARAUTZEN DUEN UDAL ORDENANTZA

HOJA 3.

### 12. Artikulua. INDARREAN SARTZEA

Honako ordenantza honen indarraldia hasierako onespena Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hogeita hamar egunera, eta testu osoa BAOn agertzen denean hasiko da.